ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2017ko ekainaren 2a, ostirala • 62 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2017ko deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 347019

Bat etorriz azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu ahal da http://www.pap.minhp.gob.es/bdns-trans/index.

Deialdiaren xedea:

Garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetza ekintzak finantzatzeko laguntzak ematea, Donemiliagako udalerritik elkartasunezko harremanak sendotzen laguntzeko.

2017an zehar egiten diren garapenerako lankidetza proiektuak lagundu ahal dira diruz. Dirulaguntza izan dezakete, halaber, 2016an egindako eta aurtengo deialdiaren harira eskatutako eta haien jarraipena diren lankidetza proiektuek.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

— Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetza proiektuak, irabazteko xederik gabeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek edo/eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

— Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean ondokoak izango dituzte: garapenerako lankidetza jarduerak egitea, irabazteko asmorik eza eta emandako diru sarrera guztiak garapenerako lankidetza jardueretan eta gizarte egintzetan erabiltzea.

Onuradunak:

Irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitateak eta pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusi zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik kanpo daude:

Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.

Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako entitate guztiak.

38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.

Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten entitateak, ondoko hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusitzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrizan espezifikoak sustatzea duten entitateak.

Oinarri arauak: Donemiliagako Udalbatzak 2017ko apirilaren 12ko osoko bilkuran onartuak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zenbatekoa: Gehieneko zuzkidura 10.154,45 euro da, ondoko honen arabera:

— 2017an gauzatu beharreko proiektuetarako, 6.377,91 euro.

— 2016an gauzatu diren proiektuetarako, aurtengo deialdiaren barruan aurkeztutako lankidetza proiektuen jarraipena badira, 3.776,54 euro.

2016an gauzatutako proiektuei dagozkien eskaerak ebatzita, kreditu erabilgarririk geratzen bada, 2017an zehar gauzatu beharreko proiektuak finantzatzen erabili ahal izango da.

Eskaerak aurkezteko epea: Deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu ondoko egunetik 2017ko irailaren 4ra arte, 14:00ak arte hain zuzen.

Erdoña, 2017ko maiatzaren 17a

Alkatea
DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.06.02 05:39:36 Z